



ZARAUZKO UDALA

EUSKARAREN EGUNA 2019

BIDEO LEHIAKETA

OINARRIAK

1. **Gaia:** Euskara 2200. urtean

2. **Parte hartzaileak:** Zarauzko ikastetxeetako DBHko, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako erdi mailako ikasleak. Pertsona edo talde bakoitzak lan bakarra bidaliko du.

3. **Lana:**

- Iraupena: minutu bat.
- Aurkezten diren bideoak originalak eta argitaratu gabeak izango dira.
- Animaziozko lanak ere onartuko dira.

4. **Aurkezteko epea:** Bideoak ikastetxeek jasoko dituzte eta **azaroaren 8a** baino lehen Euskara Departamentuan aurkeztuko dira DVD edo antzeko euskarri informatikoan.

5. **Epaimahaia:** Euskararen Eguneko koordinazio batzordea osatzen duten irakasleek eta Udaleko ordezkariak epaituko dituzte lanak. Bereziki erreparatuko diete gaiaren trataerari, kalitate teknikoari, originaltasunari eta sormenari. Epaimahaia **azaroaren 13an** elkartuko da erabakia hartzeko.

6. **Sariak**

- 1. Saria: 100 euroko txartela euskarazko kultur produktuak erosteko.
- 2. Saria: 75 euroko txartela euskarazko kultur produktuak erosteko.
- 3. Saria: 50 euroko txartela euskarazko kultur produktuak erosteko.

7. **Sari-banaketa:** Euskararen Eguneko egitaraua aurkezten den egunean izango da, **azaroaren 21a**, eta irabazleen argazkiak, izen-abizenak eta lanak hedabideetara bidaliko dira.

8. **Argitaratzea:** Onartutako bideoen egileek Zarauzko Udalari uzten dizkiote euren irudien komunikazio eta erreproduzio eskubideak.

9. **Oharrak:** Lanarekin batera, egilearen datuak adierazi beharko dira: izen-abizenak, helbidea, telefono zenbakia, posta elektronikoa eta ikastetxea.

